

# Herriko kontseiluaren 2018.08.24eko bilkura

Hor zirenak : Jean-Michel Coscarat, Marie-Agnès Haristoy, Antton Curutcharry, Lisa Dumoulin, Daniel Ithurburua, Isabelle Arangoits, Frantxoa Mocho, Annie Juantorena, Betti Bidart, Monika Indart, Eñaut Larre, Betti Olçomendy, Agnès Gorostiague, Jean-Baptiste Lambert, Dominique Mendibil.

Hor ez zirenak : Marie-Baptiste Etcheverry (ahalordea Jean-Baptiste Lambert jaunari emana), Bernadette Mousquès (ahalordea Jean-Michel Coscarat jaunari emana), Sébastien Clauzel, Christelle Errecart.

## Gai ordena :

- 1. Plaza Xoko alokatzeko baldintzen berrikustea** : Pribatu eta elkarten galdeen emendioa ikusiz baita ere Plaza Xoko gelaren andeatzeagatik eta bere goizegiko zahartzeagatik, Herriko kontseiluak gogoetak egiten ditu bere alokatzeko baldintzetaz. Herriko etxea, gelaren erabiltzairekin (elkarteak, profesionalak), harremanetan sartuko da alokatze moldeak finkatzeko : prezioen finkatzea (finko, urteko), barne araudi berri baten sortzea, egutegi baten finkatzea... Beraz Herriko kontseiluak deliberatzea giberatzen du.
- 2. Ondarea kontserbatzeko laguntzaile baten hartzea POCTEFA-ren kariatara** : POCTEFAko Kintoan Barna proiektua aitzina doa eta horren parte bat Baigorriko proiektua hunkitzen du (ondare interpretazio zentro baten sortzea).  
Herriko kontseilua, aho batez Ondare kontserbatzeko laguntzaile baten hartzearen alde agertu da.
- 3. Herriko ekipamendu bat Euskal Hirigune Elkargoari (EHE) esku uztearen agiria** : Baigorriko Turismo bulegoaren gela kitorik utzi behar da EHEri.  
Herriko kontseilua aho batez herriko gela hori kitorik uztea alde agertu da.
- 4. Donosteiko Musika Animatzailearen laneko tenoren emendio eskaera**: Herriak kontratu bat badu CMR-ekin musika inimizazio baten proposatzeko Pujo eta Donostei eskoletan. Bainan aurten zerbitzua est da ongi egina izan. Hortakotz, Donostei bere aldetik beste animatzaile bat hartu du eta nahi luke atxiki aurten ere Herriak CMRekin kontratu bat ukanik ere. Gainera Donostei galde egiten du astean oren erdi bat gehiago egin dezan (mementoan 2 oren egiten ditu). Ordurtegiaren emendio hori diru mailan goititze bat ekarri lezake buxetearen ezarria ez dena. Beraz, proposatua da helduden ikasturtea igurikatzea gai hori berrikusteko baita ere cmr-ekin dugun kontratua.  
Herriko kontseilua, aho batez Donosteiko musika animatzailearen laneko tenoren emendioaren kontra agertu da.
- 5. Musika Animatzailea Ikastolarentzat** : Tratamendu berdintasun bat ukaiteko Baigorriko hiru eskolen artean, proposatua da musika animatzaile baten hartzea Ikastolarentzat, 2 oren astean.  
Herriko kontseilua musika animatzaile baten hartzeko alde agertu da.
- 6. Lehentasunez erosteko eskubidea baliatzeko galdera** : EHE-k hirigintza eskumena duelakotz, herriak behar dako galde egin lehentasunez erosteko eskubidea ezartzea gure Herrian.  
Herriko kontseilua lehentasunez erosteko eskubidearen galdegiteko alde agertu da.